

Zu hor eta ni hemen



Nire lagun maite bat, Euskal herrian bizi zen, bederatzi urte zituen eta Maren zuen izena. Maren asko gustatzen zitzaion bidaiatzea. Bere gurasoekin bizi zen eta bere ahizpa Nahiarekin. Orain dela sei bat urte, Saharara bidaia bat egin zuten. Herri askotatik ibili ziren, eta gehien gustatu zitzaien herria Txad izan zen. Txaden lagun bat egin zuen Diara izena zuena, berak 11 urte zituen eta oso alaia eta jatorra zen. Begiak gaua bezalako ilunak zituen, baita bere ilea eta azala ere.

Beraiekin gelditzen ziren egunero Txaden pasatu zuten egunetan, bai goizean gosaldutik ostean baita arratsaldean ere, siesta bat bota ostean. Bere amari, Mireni, ere asko gustatzen zitzaion Marenek horrelako lagun bat izatea, eta egunero familia osoa, baita Diara ere, joaten ziren paseotxo bat ematera.

Egun batean, gameluan paseotxo bat ematea erabaki zuten. Diarak bere lagun baten dendara eraman zituen Marenen familiakoak, gameluak alokatzera. Basamortutik zihoazela, beste irteera batekin egin zuten topo eta denak batera joan ziren oasis batera arte. Leku oso polita zen, palmondo pila bat zeuden eta beraien etxeak kanpin-denda izugarriak ziren, oso kolore alaitsudunak. Jendea ere oso jatorra zen, zeuzkaten prestatuta freskagarri batzuk baita fruta otzarak ere. Maren, Nahia eta Diara fruta jatera joan ziren. Marenek, piña zati bat aukeratu zuen, Nahiak melokotoia eta Diarak gauzatxo ilun batzuk hartuta hurbildu zen beraiengana.

- Zer da hori? - Galdetu zion Marenek.
- Datilak. - Erantzun zion Diarak.